

TOPONIMIA BATZORDEA

- 2008-2009 Jarduketa-planaren barruan egindako lanak**
- 2011, 2012 eta 2013 urteetarako Jarduketa-planaren proposamena**

Vitoria-Gasteiz, 2011ko martxoaren 2a

Aurkibidea

I. 2008-2009 Jarduketa-planaren barruan egindako lanak.....	3
II. 2011-2013 urteetarako Jarduketa-planaren proposamena.....	4
▪ EAEko Izendegi Geografikoa GIS Korporatiboan txertatu eta izendegi zerbitzua sortu	5
▪ HPSren datu-basea eta Izendegi Geografikoa kontsultatzeko weba diseinatu.....	6
▪ HPSren datu-basea eta Izendegi Geografikoa eguneratzeko mantentze-aplikazioa egin...	7
▪ EAEko toponimia txikia ofizialtzeko prozedura zehaztu.....	8
▪ Biztanleguneen izen ofizial desegokien aldaketa bultzatu eta izen ofizial berrien zabalkundea egin	9
▪ EAEko datu-basea zuzentzeko, aldundiekin, Euskaltzaindiarekin eta udalekin lankidetzan aritu	10
▪ HPSren datu-basea udaletatik jasotako informazioarekin zuzendu eta eguneratu	11
▪ Toponimoak kartografian errotulatzeko irizpideak finkatzeko landu zen dokumentua Toponimia Batzordeak onartzea.....	12
▪ Lanak eta epemugak.....	13

2008-2009 Jarduketa-planaren barruan egindako lanak

2008-2009 Jarduketa-planaren barruan honako lanak gauzatu dira:

a) EAEko Izendegi Geografikoa egitea.

EAEko Izendegi Geografikoa egin da, eta ondoren *Nomenclátor Geográfico Nacional*-ean integratzeko (1:25.000 eskala), IGNren esku jarriko da. Orain, Izendegia Eusko Jaurlaritzaren GIS korporatiboan txertatuko da, eta horren bidez zabalkundea emango zaio.

b) Toponimoak kartografian errotulatzeko irizpideak finkatzea.

Bi hizkuntza ofizial izanda, baina bertsio bakarreko mapak argitaratzea ohikoa izanik, mapetan toponimoak zelan errotulatu behar diren eztabaidatu da Toponimia Batzordearen baitan sortutako lan-taldean, eta dokumentu batean proposamenak jaso dira. Dokumentu hori Toponimia Batzordean aurkeztuko da, hala badagokio, onespena jaso dezan.

c) Toponimiaren zabalkundea egin eta araututako toponimoen erabilera hedatu eta ziurtatzea.

EAEko toponimia arautuaren zabalkundea egiteko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza zenbait eragilerekin harremanetan jarri da, bai Sarean dauden tresnetan (GoogleMaps, GoogleEarth...), bai bestelakoetan (nabigatzaileak...) forma egokia erabiltzeko. Horretarako, azken aldiak Microsoft eta Navteq enprekin izan dira kontaktuak; haiek bidalitako zerrendak aztertu dira eta oharrak prestatu.

Hasiera batean jarrera ona erakutsi zuten arren, momentu honetan kontaktua etenda dago eta ez da ezer gauzatu. HPSn alderdi hau lantzen jarraituko dugu.

d) Bizkaiko hiri-toponimia bildu, arautu eta EAEko datu-basean integratzea.

HPSk 2008an Bizkaiko hiri-toponimia biltzeko eta hiru lurraldeen toponimia bateratzeko lanak kontratatu zituen. Lanok amaitu eta gero, jasotako informazio guztia HPSren toponimiako datu-basean integratu zen.

e) Biztanleguneen izen ofizial desagokien aldaketa bultzatu eta izen ofizial berriei zabalkundea ematea.

Euskararen Legean toponimoak ofizialtzeko finkatutako irizpidearen arabera, izen ofiziala aldatzeko premia ikusten den kasuetan, udalerrien eta biztanleguneen izen ofizialak zuzentzeko edo EAEko hizkuntza ofizial bietara egokitzeko, azken urteotan egindako lanarekin jarraitu da. 2008 eta 2010 urteen bitartean, 333 izan dira aldizkari ofizialetan argitaratu diren biztanleguneen izenak, eta udalerrri batena.

Halaber, aldatutako izenei buruzko informazioa zabaltzen eta jakinarazten segitzen diegu herri administrazioei eta izen ofizialen gaineko informazio eguneratua izan nahi dutela adierazi duten bestelako erakunde, enpresa edota pertsonen.

Horrez gain, toponimia ofizialaren erabilera okerra dela-eta jasotzen diren kexa eta oharrak bideratzen dira.

**2011, 2012 eta 2013 urteetarako
Jarduketa-planaren proposamena**

EAEko Izendegi Geografikoa Eusko Jaurlaritzaren GIS Korporatiboan txertatzea eta izendegi zerbitzua sortzea

EAEko Izendegi Geografikoa Eusko Jaurlaritzaren GIS Korporatiboan txertatzea eta izendegi zerbitzua sortzea.

Helburua: EAEko izendegi Geografikoan jasotzen diren toponimoak eta horien kokapena zehazten duen kartografia erabiltzaileen esku jartzeko, EAEko Izendegi Geografikoa Eusko Jaurlaritzako GIS korporatiboan txertatzea eta izendegi zerbitzua sortzea.

Deskribapena: EAEko Izendegi Geografikoa amaitu ondoren, ezinbestekoa da bertan dagoen informazioari zabalkundea ematea Interneten bidez. Horrela, toponimia erabiltzaileek eta, orokorrean, herritar guztiek aukera izango dute EAEko toponimia egokia zein den jakiteko. Zerbitzu hori emateko, lehenengo eta behin, Izendegia Eusko Jaurlaritzako GIS korporatiboan txertatuko da, eta ondoren, izendegi zerbitzua ezarri behar da, hau da, "...sarearen bidez ematen den zerbitzua, hain zuzen, fenomeno baten edo gehiagoren identifikatzaileak emanda (testu-kateak), fenomeno horien deskribapen geometrikoa bueltan bidaltzen duen zerbitzua ...". izendegi zerbitzuak EAEko Izendegi Geografikoaren datu-baseko edukiak "Modelo de Nomenclátor de España" dokumentuan zehaztutakoarekin bat etorritik argitaratuko ditu, hau da, estandarrak erabiliz, horrela, bai IGNk eta bai bestelako erakunde zein erabiltzaileek bertan eskaintzen den informazioa hartu ahal izango dute baliabide berezirik behar izan gabe.

Proposamena: Batetik, EAEko Izendegi Geografikoa GIS Korporatiboan txertatzea, EAEko toponimia kartografiarekin batera eskaintzeko; eta bestetik, izendegi zerbitzua sortzea, informazio hori modu errazean, osatuan eta erakargarrian erabiltzaileen eskura jartzeko.

Oharra: Une honetan lanon kontratazioa lehiaketa publiko bidez egiteko izapideak martxan ditugu.

Data: Kontratazioa 2011ko uztaila baino lehen egin nahi da. Lana 12 hilabeteren buruan egingo da, kontratua esleitzen denetik.

Egileak: HPS, Lurralde Antolamendua, EJIE.

EAEko toponimiako datu-basea eta Izendegi Geografikoa kontsultatzeko Webgunea

EAEko toponimiako datu-basea eta Izendegi Geografikoa kontsultatzeko Webgunea

Helburua: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako datu-basean eta EAEko izendegi Geografikoan jasotzen diren toponimoak erabiltzaileen esku kontsultagai jartzeko web-bilatzailea egitea.

Deskribapena: EAEko Izendegian eta HPSren datu-basean dagoen informazioari buruz mota desberdinetako kontsultak egiteko balioko duen web-bilatzailea egingo da. Gainera, Webgunea kontsulten emaitzak mapa batean erakusteko eta mapatik nabigatzeko aukera eskainiko du. Halaber, etorkizunean toponimoen ahoskera jasotzen duten soinu-fitxategiak txertatzeko eta erreproduzitzeko prestatuta utziko da sistema.

Proposamena: EAEko toponimiako datu-basea eta EAEko Izendegi Geografikoa kontsultatzeko web-bilatzailea egitea, informazio hori modu errazean, osatuan eta erakargarrian erabiltzaileen eskura jartzeko.

Oharra: Une honetan lanon kontratazioa lehiaketa publiko bidez egiteko izapideak martxan ditugu.

Data: Kontratazioa 2011ko uztaila baino lehen egin nahi da. Lana 12 hilabeteren buruan egingo da, kontratua esleitzen denetik.

Egileak: HPS

EAEko toponimiako datu-basea eta Izendegi Geografikoa zuzendu eta eguneratzeko mantentze-aplikazioa egitea

EAEko toponimiako datu-basea eta Izendegi Geografikoa zuzendu eta eguneratzeko mantentze-aplikazioa egitea

Helburua: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak EAEko toponimia biltzeko egindako lanen ondorioz sortutako datu-basea elikatzeke, zuzentzeko eta eguneratzeko aplikazio informatikoa egitea. Aplikazioaren bidez, datu-basean egiten diren eguneraketak modu automatikoan egingo dira Izendegi Geografikoan ere.

Deskribapena: Toponimiako datu-basean jasota dagoen informazioa eguneratuta eduki behar da, herritarrek zein erakundeek dituzten beharrei erantzuteko momentuan eraginkorra eta erabilgarria izatea nahi badugu. Eguneratzea egiteko ardura Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak du, eta horretarako hainbat iturri desberdin erabiltzen ditu: aldizkari ofizialak, Euskaltzaindiarekiko lankidetzak, beste administrazio batzuekiko lankidetzak, argitalpenak, mapa toponimikoak, ahozko galdeketak, etab. Hori dela eta, toponimiako datu-basearen eta EAEko Izendegi Geografikoaren mantentze-lanak egiteko tresna informatiko bat edukitzea ezinbestekoa da, lan horiek erraztasunez, egokitasunez eta zuzentasunez egiten direla bermatzeko.

Proposamena: EAEko toponimiako datu-basea zuzendu eta eguneratzeko mantentze-aplikazioa egitea, aldizkari ofizialetatik, argitalpenetatik, beste administrazio batzuekiko eta Euskaltzaindiarekiko lankidetzatik, mapa toponimikoetatik, eta bestelako iturrietatik jasotako informazioa kudeatzeko.

Oharra: Une honetan lanon kontratazioa lehiaketa publiko bidez egiteko izapideak martxan ditugu.

Data: Kontratazioa 2011ko uztaila baino lehen egin nahi da. Lana 12 hilabeteren buruan egingo da, kontratua esleitzen denetik.

Egileak: HPS

EAEko toponimia txikia ofizialtzeko prozedura zehaztea

EAEko toponimia ofiziala zein den finkatzeko prozedura zehaztea.

Helburua: Ofizial estatusa ez duten toponimoak, hau da toponimo txikiak (ibaiak, mendiak...) ofizialtzeko prozedura ezartzea, mapetan, testuetan, erregistroetan eta gainerako erabilera ofizialetan forma berbera erabil dadin.

Deskribapena: Biztanleguneen eta udalerrien izenak ofizialtzeko jarraibideak aspalditik ezarrita dauden arren, gaur-gaurkoz ez dago EAEko gainerako ofizialtzeko prozedurarik, hau da, Eusko Jaurlaritzak ez ditu EAEko toponimoak ofizialtzen, ez ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen. Horren ondorioz, askotan zehaztasun falta ikusten da toponimia horren erabileran. Hala, toponimo bera bi edo hiru idazkera desberdinekin aurki dezakegu. Hori saihesteko, ezinbestekoa da toponimia ofizialtzeko prozedura jasoko duen Dekretu bat egitea, horren ondoren toponimoak EHAA n pixkanaka-pixkanaka argitaratzeko eta balio ofiziala emateko.

Proposamena: EAEko toponimia ofizialtzeko prozedura zehaztuko duen Dekretua lantzea. Horretarako, Kultura Saileko teknikariek, lege-aholkularitzarekin batera, gaia aztertu eta proposamena landuko dute, Kultura Sailak onar dezan. Kultura Sailak onartutako proposamenaren berri emango zaio Toponimia Batzordeari, batzordekideek iritzia eman dezaten. Behin hori landuta eta onartuta, entitate geografikoak multzoka ofizialdu ahal izango dira.

Data: 2011ko abendua.

Egileak: HPS

Biztanleguneen izen ofizial desegokien aldaketa bultzatu eta izen ofizial berriei zabalkundea ematea

Biztanleguneen izen ofizial desegokien aldaketa bultzatu eta izen ofizial berriei zabalkundea ematea.

Helburua: EAEko biztanleguneen izen ofizial desegokien aldaketa bultzatzea eta izen ofizial berriei zabalkundea ematea. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egin izan du eta egiten du lan hori.

Deskribapena: Euskararen Legean toponimoak ofizialtzeko finkatutako irizpidearen arabera, izen ofiziala aldatzeko premia ikusten den kasuetan, udalerrien eta biztanleguneen izen ofizialak zuzentzeko edo EAEko hizkuntza ofizial bietara egokitzeko, azken urteotan egindako lanarekin jarraitu behar da. HPSren aldetik, izen ofiziala aldatu nahi duten toki-entitateei espedientearen izapideak burutzeko laguntza eskaintzen zaie.

Bestalde, aldatutako izenei buruzko informazioa zabaltzen eta jakinarazten segitu behar da herri administrazioei izen ofizialen gaineko informazio eguneratua izan nahi dutela adierazi duten bestelako erakunde, enpresa edota pertsoneri. Azkenik, toponimia ofizialaren erabilera okerra dela-eta jasotzen diren kexa eta oharrak bideratzen jarraituko dugu.

Proposamena: Lan hau egiteko zailtasunak daudenean, erakundeen aldetik erantzunik jasotzen ez delako, Toponimia Batzordeko kideren baten laguntza beharrezkoa izan liteke egoera desblokeatzen saiatzeko.

Data: Etengabe

Egileak: HPS, aldundiak eta udalak

EAEko toponimiako datu-basea zuzendu eta eguneratzeko, erakunde desberdinekin lankidetzan aritzea

EAEko toponimiako datu-basea zuzendu eta eguneratzeko, aldundiekin, Euskaltzaindiarekin eta udalekin lankidetzan aritzea.

Helburua: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPSk) duen EAEko toponimiako datu-basea eguneratuta mantentzeko, erabili behar diren bideak erakundeekin adostea.

Deskribapena: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak EAEko toponimia jasotzeko lanak amaitutzat eman ditu. Gaur egun esan daiteke EAEko datu-basea osatuta eta bateratuta dagoela egiturari dagokionez. Dena den, edukiari dagokionez oraindik zer hobetu badago: batetik, biztanleguneen ofizializazio-lana oraindik ez da amaitu, eta bestetik, asko dira euren eremuan toponimia-lanak egiten ari diren udalerrriak. Horrek esan nahi du etengabe datu berriak sortzen ari direla, eta datu horiek HPSren datu-basera ekartzea komeni dela. Horretarako ezinbestekoa izango da Euskaltzaindiarekin, Aldundiekin, udalekin eta gainerako eragileekin lankidetzan aritzea.

Proposamena: Erakunde eta eragile guztiekin lankidetzan aritzeko eta informazioa trukatzeko bidea zehaztu beharko da honen arabera: HPSren esku dagoen informazioa izendegi zerbitzuaren bidez erakundeen esku jarriko da, eta bakoitzak interesatzen zaiona hartu ahal izango du; bestalde, erakundeek jasotako informazioan detektatzen dituzten akatsak zuzentzeko, edota datuetan falta den bestelako informazio baliagarria HPSri jakinaraziko diote.

Data: Etengabe

Egileak: HPS, Euskaltzaindia, Lurralde Antolamendua, aldundiak, EUDEL, udalak, IGN

EAEko toponimiako datu-basea udaletatik jaso dugun informazioarekin zuzendu eta eguneratzea

EAEko toponimiako datu-basea udaletatik jaso dugun informazioarekin zuzendu eta eguneratzea

Helburua: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak udaletatik jaso dituen txostenak baliatuz, EAEko toponimiako datu-basea eguneratzea eta zuzentzea.

Deskribapena: HPSra etengabe heltzen dira datu-baseko toponimoak jasotzeko eskaerak. Azken urteotan, HPStik eskatu zaie bidalitako informazioan akatsik aurkituz gero edota euren lanean toponimo berririk txertatuz gero, horren berri HPSri ematea, gure datutegia zuzentzeko eta eguneratzeko. Horren ondorioz, baditugu hainbat udaletako lanak jasota, baina EAEko Izendegi Geografikoa egin bitartean, ezin izan da gure datu-basean inongo aldaketarik egin, kontu teknikoak direla eta. Hala ere, dauzkagun datuak ezin dira dauden-daudenean sartu, lehenago kontrastatu eta osatu egin beharko dira. Horrek lan berezia eskatzen du, baina lehenbailehen egitea komeni da, Izendegi Geografikoa kontsultagai jartzen denean, eguneratuta egoteko denbora luze igaro ez dadin.

Proposamena: HPSn udaletatik jaso ditugun datuak (toponimo berriak eta zuzenketak) aztertzea, osatzea eta datu-basean sartzea. Lan honetarako ezinbestekoa izango da Euskaltzaindiarekiko koordinazioa.

Data: 2012ko abendua.

Egileak: HPS

Toponimoak kartografian errotulatzeko irizpideak finkatzeko landu zen dokumentua Toponimia Batzordeak onartzea

Toponimoak kartografian errotulatzeko irizpideak finkatzeko landu zen dokumentua Toponimia Batzordeak onartzea

Helburua: Toponimia Batzordearen baitan sortutako lan-taldeak toponimia errotulatzeko irizpideekin prestatu zuen dokumentua Toponimi Batzordearen aurrean aurkeztea, onar dezan.

Deskribapena: Bi hizkuntza ofizial izanda, baina bertsio bakarreko mapak argitaratzea ohikoa izanik, mapetan toponimoak zelan errotulatu behar diren eztabaidatu zen Toponimia Batzordearen baitan sortutako lan-taldean, eta dokumentu batean proposamenak jaso ziren. Orain, dokumentu hori Toponimia Batzordean aurkeztuko da, hala badagokio, onespena jaso dezan.

Proposamena: Toponimia Batzordeak toponimoak kartografian errotulatzeko irizpideak aztertzea eta onartzea.

Data: 2011ko ekaina.

Egileak: Toponimia Batzordeko kideak

TOPONIMIA BATZORDEA

2011ko jarduketa-plana: lanak eta epe-mugak

EGIN BEHARREKO LANAK	EPE-MUGA
EAEko Izendegi Geografikoa GIS Korporatiboan txertatzea eta izendegi zerbitzua sortzea	12 hilabete kontratua esleitzen denetik
EAEko toponimiako datu-basea eta Izendegi Geografikoa kontsultatzeko Webgunea egitea	12 hilabete kontratua esleitzen denetik
EAEko toponimiako datu-basea eta Izendegi Geografikoa zuzendu eta eguneratzeko mantentze-aplikazioa egitea	12 hilabete kontratua esleitzen denetik
EAEko toponimia ofiziala zein den finkatzeko prozedura zehaztea	2011ko abendua
Biztanleguneen izen ofizial desegokien aldatzea bultzatu eta izen ofizial berriei zabalkundea ematea.	Etengabe
EAEko toponimiako datu-basea zuzendu eta eguneratzeko, aldundiekin, Euskaltzaindiarekin eta udalekin lankidetzan aritzea	Etengabe
EAEko toponimiako datu-basea udaletatik jasotako informazioarekin zuzendu eta eguneratzea	2012ko abendua
Toponimoak kartografian errotulatzeko irizpideak finkatzeko lanu zen dokumentua Toponimia Batzordeak onartzea	2011ko ekaina